

Elikadura-iruzurra irabazi-asmoz egiten da, elikagaiak nahita merkaturatzen direnean kontsumitzaileei iruzur egiteko

Elikadura-iruzurren ondorioz, kontsumitzaileek galdu egiten dute konfiantza elikagaien ekoizpen-katean. Gainera, kontsumitzaileen osasunerako arriskuak sortu ahal dituztenean, **Elikagaien Segurtasunaren** arazo bihurtzen dira.

ELIKADURA IRUZURRA

Elikaduran hainbat iruzur-mota daude, eta oro har bi kategoria handitan sailka daitezke:

- ✓ Elikagaiaren osagaiei eragiten dietenak; hots, osagaien bat nahita gehitzea, ordezkatzeta, eraldatzea edo faltsutzea. Oro har, helburua izaten da kostua murriztea edo ezaugarri zein propietateren bat hobetzea (esate baterako, esnari melanina gehitzea).
- ✓ Etiketatako azalpenei dagozkienak: osagaiei, prozesuei edo produktuaren ezaugarri edo onurei buruzko azalpen faltsu edo engainagarriak, baita jatorri edo ekoizpen geografikoari buruzkoak ere (esate baterako, basati gisa saldutako arrain-haztegietako arraina).



Fuente: *I Can't Believe It's Not Butter Light* label por lovebutter

Halaber, elikadura-iruzurrak hitz egiten da iraungitze-data gainditu duten elikagaiak saltzen direnean edo horiek berrerabili egiten direnean elikagai berriak egiteko, jatorri ezezaguneko produktuak ontziratzen eta merkaturatzen direnean eta legez kanpo hildako edo lapurtutako animalietatik lortutako elikagaiak saltzen direnean.

Iruzurren ondorioz, kontsumitzaileek galdu egiten dute elikagaien ekoizpen-katean duten konfiantza.

Elikadura-iruzurra mehatxua dira kontsumitzaileek elikagaien ekoizpen-katean duten konfiantzarako, nahiz eta elikagaien segurtasunaren ikuspegitik garrantzitsuagoak izan Osasun Publikoan eragin kaltegarriren bat izan dezaketen iruzurrak. Izan ere, arriskua eragin dezakete kontsumitzaileen artean.

Elikagaien osaerari zuzenago eragiten dioten iruzurrak dira ohikoenak, eta erronka garrantzitsuagoa dira elikagaien segurtasunaren esparruko ikerketarako, iruzur-mota horietan erabilitako substantziak ez baitira arruntak izaten eta ohiko analisietan atzematea saihesteko diseinatzen baitira. Antzemateko zailtasun horrek dakar esparru horretako ikerketa-lanen lehenetako bat izatea elikadura-iruzur horiek aurkitzeko azterketa-metodoak garatzea.

Elikadura-iruzurrak atzematea: ikerketa-lehentasuna Elikagaien Segurtasunaren arloan

Etiketen iruzurrari dagokionez eta, zehazki, osagai bat edo horren trazak azaltzen ez diren kasuetan, herritarrentzako arriskua zalantzarik gabekoa da.


Etiketatea eta trazabilitatea: arma boteretsuak

Elikagaiak **era egokian etiketatzea** funtsezkoa da elikadura-iruzurra kontrolatzeko (Elika, 2011). Etiketatzearen helburu nagusia da elikagaien edukari eta osaerari buruzko informazio osoa bermatzea, kontsumitzaileen osasuna eta interesak babeste aldera. Hori dela eta, etiketak funtsezko elementuak dira elikagaiak erostean, elikagai-ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko

komunikazio-bide nagusia baita. Legeak ekoizleak derrigortzen ditu etiketan adieraztera ekoizpen-prozesuan egon diren osagai guztiak, pisutsuenetik arinenera ordenaturik. Bestalde, agintarien esku dago etiketatze egokia eta azaldutako edukia zuzena dela zaintzea.

Etiketatean osagaien bat ez adierazteak ondore txarrak izan ditzake herritar alergikoen artean.

Trazabilitatea elikagai jakin baten jatorria eta historiala identifikatzea eta berreraikitzea ahalbidetzen digun tresna da, igarotzen dituen fase guztiak barne hartuta (bilketa, sortzea, ekoiztea, biltegitzea, banatzea...). Beraz, kontsumitzaileek informazioa izateko eta produktu jakin baten kalitatea ziurtatzeko funtsezko tresna izateaz gain, oinarritzkoa da iruzurra dakarten produktuak merkatutik ateratzeko.



Kalitate bereiziko elikagaiak

Merkatuan gerta daitezkeen iruzurren aurkako aparteko bermea ematen duten hainbat produktu dago, hala nola, kalitate bereiziko elikagaiak. Elikagai horiek Europako araudi baten menpe daude, eta araudi horrek, hain zuzen ere, bermatu egiten du gainerako produktuentzat ezarritako betekizunak baino betekizun zorrotzagoak betetzea. Gainera, administrazioek kontrol handiagoak ezartzen dizkiete. Kategoria bereizi horretakoak dira honako produktu hauek:

- ✓ **Jatorrizko Izendapen Babestua (JIB):** elikagaien kalitatea edo ezaugarriak geografiatik eratorriak dira (natura eta giza faktoreak), eta ekoizpen-, eraldatze- eta sortze-prozesuak izena ematen dien zonalde geografiko mugatuan egiten dira (esate baterako, Idiazabal gazta).

- ✓ **Babestutako Gune Geografikoaren Aipamena (BGGA):** ezaugarri edo ospe berezia, edo jatorri geografikoari egotz dakiokkeen bestelako ezaugarriren bat duten produktuak dira. Ekoizpen-, eraldatze- eta sortze-prozesuak izena ematen dien zonalde geografiko mugatuan egiten dira (esate baterako, Nafarroako patxarana).

- ✓ **Espezialitate Tradizional Bermatua (ETB):** kategoria bereko beste elikagai batzuetatik bereizten dituzten ezaugarri zehatzak dituzten produktuak dira, lehengai tradizionalak erabilia ekoiztikoak edo osaera, ekoizpen-metodo edo eraldatze tradizionala dutenak (esate baterako, abeletxeko esnea).



Denominación de Origen Protegida



Indicación Geográfica Protegida



Especificidad Tradicional Garantizada

Iruzurren aurrean babestea

Kontsumitzaileen eraldatze eta iruzurren aurrean duten defentsa Elikadura Zuzenbidearen baitan dago (Elika, 2012). Zehazki, elikagaiak lehenengoz ekoizten direnetik kontsumitzen diren arte araupetzen dituen zuzenbidearen adarra da. Elikadura-iruzurra osasun publikoaren aurkako iruzur larria dira, eta horregatik bilatzen dira eta legeak zigortzen ditu.

Europar, Kontsumitzaileen Osasun eta Babes Zuzendaritza Nagusiak (DG SANCO) kudeatzen du kontsumitzaileen babes-esparruko legeria erkidea agertzen diren arrisku berrien aurrean. Helburu nagusia da ekoizpenaren higiena eta segurtasuna eta elikagaien merkaturatze-prozesua muga onargarrien baitan mantentzea.

Zenbait herrialdetan datu-baseak sortu dira, elikagaiak eraldatzeko erabili ahal diren produktuei buruzko informazioa biltzeko. Hain zuzen, horien bidez iruzur-joerak identifika daitezke. Tresna horiek baliabide garrantzitsua dira hala iruzur-jardueraren patroio emergenteak atzemateko nola elikadura-iruzurraren inguruko ezbeharrak ikertzeko informazio bila ari diren tokiko agintarientzat

- ✓ Estatu Batuetako Farmakopea Konbentzioak (USP, 2012) 1980az geroztik zientzia-literaturan elikadura-iruzurrari buruzko 1.300 erregistrori baino gehiagori buruzko informazioa bildu du, baita iruzur horiek atzemateko metodoak ere.
- ✓ Erresuma Batuan, Elikagaien Segurtasunerako Agentziak (FSA, 2012) iruzurraren aurkako beste datu-base bat sortu du. Informazio-iturriak kontrol-agintariak, industriak eta kontsumitzaileak izan dira.

CONCLUSIONES

- Irabazi-asmoz, elikagai bat kontsumitzaileari iruzur egiteko nahita merkaturatzen bada, elikadura-iruzurra egiten da.
- Elikadura-iruzurrak Osasun Publikoaren aurkako delitu larria dira; beraz, ikertu egiten dira eta legeak zigortu egiten ditu. Gainera, kontsumitzaileek elikagaien ekoizpen-katean duten konfiantza galtzea dakarte.
- Elikagaien etiketatzea eta trazabilitatea dira elikadura-iruzurraren aurkako borrokan dugun arma boteretsuenak. Beste alde batetik, merkatuan badira hainbat produktu iruzurren aurkako berme erantsia ematen dutenak, hala nola, kalitate bereiziko elikagaiak.



ESTEKA INTERESGARRIAK

[Elika, 2011](#). Elikagaien etiketatzea. Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa.

[Elika, 2012](#). Elikadura Zuzenbidea. Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa.

[Ferro Veiga JR](#). Fraudes alimentarios ¿Qué comemos?. Noticias jurídicas, 2012ko urria.

[FSA, 2012](#). Food fraud database. Food Standards Agency.

[Moore, J.C., Spink, J., Lipp, M. \(2012\)](#) Development and application of a database of food ingredient fraud and economically motivated adulteration from 1980 to 2010. Journal of Food Science, 77(4): 118-126.

[USP, 2012](#). Food Fraud Database. United States Pharmacopeial Convention.